

# erakusketa



OÑATI  
dabilen herria

Garai bateko Oñati nola aldatu den ikusteko, *Oñati dana zana* izeneko erakusketa antolatu du Udalak. Erakusketa Kale Barrian jarriko da eta urriaren 21etik azaroaren 25era egongo da zabalik. Larunbat goizetan, ibilaldi gidatuak ere egingo dira. Oñati zer izan zen eta egun zer den ikusi eta aztertzeke.

Aldaketa horien oinarrian garaian-garaiko hirigintza-planak daude. Horregatik, hurrengo urteetarako plana egiten hasiko garen honetan, uste dugu garrantzitsua dela udalerrria nola garatu den ulertzea.

Hortaz, atsegin handiz gonbidatzen zaitugu etorkizuneko Oñatiri buruz gogoeta egitera eta ibilaldi gidatuetan parte hartzera.

## Ibilaldi gidatuak

"No hay ninguna lógica que pueda ser impuesta a la ciudad; la gente la hace, y es a ella, no a los edificios, a la que hay que adaptar nuestros planes"

Jane Jacobs

... eta zuk.  
Oñatiko aldaketen inguruan,  
zein iritzi duzu?



OÑATE  
¿AÑO 2.020?

"Ez dago hiriari inongo logikarik inposatzerik; jendeak egiten du, eta jendeari, ez eraikinei, egokitu behar zaizkio gure planak"

Jane Jacobs



OÑATI  
dana  
zana

urriak

octubre

21

Muntaia eta irekiera

Kale Barrian egongo gara erakusketa muntatzen. Zuk ere parte har dezakezu, etorri muntaketan laguntzera.

Muntaketa amaitzean, luntx batekin emango zaio hasiera 6 asteko erakusketa eta ibilaldi gidatuen programari.

Montaje colaborativo e inauguración de la exposición en torno a un lunch.

Ibai 28 ezkutua



Ibaiak Oñatiren garapenean izan duen eragina ezagutuko dugu: kokapen-aldaketak, eman zaizkion erabilerak, estaltzea...

Natur eskolak gidatutako bisitan, herriaren azpitik pasatzen den ibaian barrena ibiliko gara.



Nos adentraremos en el río para pasar debajo de Oñati, viendo el tratamiento que ha tenido el río en el municipio.

Landa 4 inguruko eraldaketak



Gure lurraldea asko aldatu da azken 80 urteetan, bizimodu-aldaketak eragin handia izan baitu landa ingurunean.

Udalerrian egingo dugun ibilaldiaren bidez, bertatik bertara ezagutuko ditugu izandako aldaketak eta etorkizuneko erronkak.



Paseo por los alrededores del municipio para observar los cambios que se han dado en nuestro entorno rural.

Plaza 11 eta kaleen izana eta izaera



Erdigunean plazak eta kaleak eraldaketa handiak izan dituzte, gizartea aldatzearekin batera herritarren bizimodua ere asko aldatu delako.

Espazio publiko nagusiak aztertuko ditugu, Oñatiko arkitektoen eskutik, toki horien iraganaz eta orainaz hausnartuko dugu.



Se visitarán espacios públicos que han sido seleccionados por la/os arquitecta/os de Oñati. Se hablará del pasado y presente de estos lugares.

Lorategi 18 eta baratze ezkutua



Eraikinak ez ezik lorategiak eta baratzeak ere Oñatiko herriaren elementu garrantzitsuak dira. Horietako asko pribatuak dira eta ez ditugu sekula ikusi.

Bisita honetan, hainbat lorategi eta baratze pribatuetara sartuko gara: Garai, ...



Nos adentraremos en los jardines y huertas privadas para ver lugares naturales dentro del Oñati edificado.

azaroak

noviembre

25

Irudikapena eta itxiera

Erakusketak iraun bitartean ikusi eta ikasitakoa planoetan eta marrazkietan irudikatzen ibiliko gara Kale Barrian. Bakoitzak bere Oñati irudikatuko du.

Goizean zehar, eta erakusketa itxeko luntx bat eskainiko da.

Para cerrar la muestra, dibujaremos las diferentes Oñatis que cada persona vive y siente, representando el mayor número de diversidades.



Izen ematea eta argibideak:

Udaletxean edo odanazana@gmail.com helbidera idatzita

Ibilbide gidatuak larunbatetan 10.30ean erakusketa gunetik abiatuta.

OÑATI  
dana  
zana